



TALLERES

TAILERRAK



THE SOUND WE SEE

A Pamplona- Iruñea City Symphony

IKUSTEN DUGUN SOINUA

Iruñea hiriaren sinfonia bat



2018 /

Otsailaren 23tik, martxoaren 5era.

II Huarte

Elkarlanerako esperientzia honekin bat egin nahi duzu eta Iruñea hiriaren filmazio sinfonia bat sortu?

The Sound We See, elkarlan-sorkuntza filmikorako mundu mailako mugimendua da, Iruñera iritsiko da hiriaren Sinfonia bat sortzeko. Walter Ruttmann eta Dziga Vertov, XX. mendeko abangoardiako dokumentalisten lana abiapuntu izanik, sinfoniek hiriaren izpiritua eta berezitasunak atzitzen dituzte eguneroko bizitzako irudiak konbinatuz.

Abangoardiako dokumentalista hauen teknikez jabetuz eta birdefinituz, parte-hartzaileek 24 minutuko film-artisaua egingo dute Super8 kamerak eta errebelatu era ekologiko bat erabiliz. Sortutako filma, Iruñea hiriaren inguruko ospakizun zinematiko bat izango da eta zuzeneko musikarekin, Punto de Vista festibalaren itxiera ekitaldian estreinatuko da, martxoaren 10ean.

Lantegia Lisa Marr eta Paolo Davazo, zine errealizadore, hezitzaile eta ekintzaile zinematografikoek eskainiko dute, hauen lana, elkarlan-sorkuntza eta eraldaketa sozialaren katalizatzaile izatea da. Egun, Los Angeles hirian dagoen Echo Park Film Centerra zuzentzen dute, heziketa filmiko analogikoan oinarritzen den arte komunitariorako gunea. The Sound We See Los Angelesen garatu zen lehen aldiz, ondoren Holanda, Vietnam, India, Kanada, Ingalaterra, Alemania, Japon, Suedia, Mexiko, Bulgaria eta Letoniara bidaiatu izan du Hiriko Sinfonia propioak sortuz.

PARTE-HARTZAILEAK

Ikus-entzunezkoetan interesa duten 18 urtetik gorako pertsonak. Ikus-entzunezko Komunikazioko eta Arte Ederretako ikasleak. Ez da Super 8 edo 16mm-en inguruko aurre ezagutarik behar. Gehienez 20 kide.

DATAK

Otsailaren 23tik, martxoaren 5era. hiru saio partaideko.

Otsailaren 23tik, 25era: Partaide bakoitzak bi orduko grabazio bat burutuko du hiriaren puntu batean. Zerbait grabatzeko geratzen bada 26, astelehenean egingo litzateke.

Otsailaren 27tik, martxoaren 1era: partaide bakoitzak, bi orduz prozesatuko du bere grabazioa Uharte Zentroan.

Martxoaren 3 eta 4ean: Partaide bakoitzak sortutako materiala editatuko du ordubetez Uharte Zentroan.

Partaideek Lisa Marr eta Paolo Davazoren laguntza jasoko dute prozesua aurrera eramateko.

KUOTA

20 euro

INFORMAZIO OSAGARRIA eta IZEN-EMATEAK

Izen-emateko, bete formularioa otsailaren 15a baino lehen:

www.centrohuarte.es/eu/the-sound-we-see-ikusten-dugun-soinua



